



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

## 2023KO URRIAREN 18ko BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.  
Eguna: 2023-10-18.  
Hasiera ordua: 19:30.  
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

### BERTARATUAK:

#### EH BILDU

Ines R. Matxiarena Aldalur  
Patxi Castillo Graciarena  
Maria Guadalupe Mendigutxia Etxebeste  
Jose Esteban Aguirre Zubieta  
Francisco Larrechea Lazcano  
Angel Pombar Sainz

#### HERRIRAKO

Jose Antonio Oyarzabal Iribas  
Andoni Andueza Intxaurreondo

### EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Adela Arlegi Goienetxe  
Estibaliz Pinacho Olaciregui

### ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

### 1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera bidali zen aurreko bilkurako aktari (2023-09-20). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

### 2. UDALBATZAREN OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA ALDATZEA.

Alkateak proposatu du 2023ko ekainaren 26ko Osoko Bilkuran ohiko bilkurak egiteko ezarritako eguna aldatzea (hileko hirugarren asteazkena).

Gaia eztabaidatu ondoren,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Ohiko osoko bilkura egitea hilabetero, 3. asteartean, 19:30ean.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGAÑA  
2023/10/19



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGAÑA  
2023/10/19

2. Hilabeteko 3. asteartea jaieguna dela suertatuko balitz edo Udalbatza biltzea ezinezkoa balitz beste arrazoiengatik, talde- buruekin aztertu ondoren, ondoko egunen batean egingen da.

### **3. BERTAKOENTZAT GORDETAKO APARKALEKUETAN TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK APARKATZEKO GAITZEN DUTEN TXARTELAK (BERTAKOEN BEREIZGARRIA) LORTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA. HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik:

- Bertakoentzat gordetako aparkalekuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko gaitzen duten txartelak (bertakoen bereizgarria) lortzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala onesteko espedientea. Bertan jasotzen da ordenantzaren proposamena.

- Idazkariak 2023ko urriaren 9an egindako txostena.

- Ez direla egin Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikuluko izapideak, aurretiazko kontsulta publikoa eta entzunaldia, arau horren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoan eta Auzitegi Gorenaren 2023ko urtarrilaren 31ko epaian oinarrituta.

Kontuan hartuta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen –NTOFL- 100.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako toki-erakundeek tasak ezarri ahal dituztela toki jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik.

NTOFLaren 13. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluetan ezarritakoa betez,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Hasierako onespena ematea bertakoentzat gordetako aparkalekuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko gaitzen duten txartelak (bertakoen bereizgarria) lortzeko tasaren ezarpenari.

2. Hasiera batez onestea bertakoentzat gordetako aparkalekuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko gaitzen duten txartelak (bertakoen bereizgarria) lortzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala.

3. Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, aldeztatik Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Udaletxeko iragarki oholean iragarkia jarrita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek hura aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal ditzaten.

4. Ohartaraztea ez bada erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten, hasierako onspen hau behin betikoa bilakatuko dela eta ordenantzaren testua NAO n argitaratuko dela.

5. Behin betiko onartutako ordenantza igorriko da Nafarroako Toki Erakundearen Ordenantza Fiskalaren Erregistrora.



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

#### 4. LANKIDETZA-HITZARMENA, BERAKO UDAL PLAN OROKORRA EGITEKO.

2023ko otsailaren 15ean Udalak egindako osoko bilkuran erabaki zuen Nafarroako Gobernu departamentu eskudunari eskatzea Berako Udal Plan Orokor berria egiteko lankidetzahitzarmen bat sinatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Kohesiorako Departamentuak eta Berako Udalak Udal Plan Orokorra egiteko sinatu beharreko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa eta espedientean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren,

##### aho batez ERABAKI DA:

1. Hitzarmenaren zirriborroa eta bertan zehaztutako foru intereseko helburuak onartzea.
2. Udal intereseko helburuen dokumentua onartzea, hitzarmenean sartzeko. Dokumentu horren edukia espedientean jasota dago.
3. Honako udal-ordezkarri hauek izendatzea Jarraipen Batzordean parte hartzeko:
  - Alkatea, Aitor Elexpuru Egaña.
  - Zinegotzia, Jose Esteban Aguirre Zubieta.
  - Idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea.
4. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.
5. Erabaki hau helaraztea, udal intereseko helburuen dokumentuarekin batera, Lurralde eta Paisaiako Zerbitzuari.

#### 5. BERAKO BASO-SUTEEN AURKAKO UDAL EKINTZA PLANA (BSUEP).

Babes Zibilari eta Larrialdiei Aurre Egiteari buruzko 8/2005 Foru Legeak 13. artikuluan ezartzen duenez, plan bereziek ezarriko dituzte, hala badagokio, Nafarroako arrisku jakin batzuei erantzuteko udal ekintza planak egin eta onetsi behar dituzten udalerrriak.

Nafarroako Foru Komunitateko Baso-suteetarako Larrialdiko Babes Zibileko Plan Bereziak (INFONA), 2022ko azaroko berrikuspenean, lurraldearen zonifikazioa ezartzen du, eta Arrisku Handiko Eremuak (AHE) izendatzen ditu. Horietan, baso-suteen aurrean jarduteko udal planak (BSUEP) egin beharko dira nahitaez.

Berako udalerrria Arrisku Handiko Eremu gisa identifikatzen da udako eta neguko arriskuagatik, eta, beraz, behartuta dago bere BSUEP egitera. Dokumentu hori Basarteak idatzi du.

Tokiko Ekintza Planak (BSUEP) garatzen dituen INFONAREN 3. eranskinean honako hau jasotzen da: Udal Ekintza Plan Bereziak toki-korporazioko organoek onetsiko dituzte, Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren, eta Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordeak homologatuko ditu.

Nafarroako Gobernu Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuak Berako planaren aldeko



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGAÑA  
2023/10/19

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 3 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELENPURU EGANA  
2023/10/19

txostena egin duela kontuan izanda,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Berako Baso-Suteen Aurkako Udal Ekintza Plana (BSUEP) onartzea.

2. Erabaki hau eta onetsitako agiria Nafarroako Foru Komunitateko Babes Zibileko Batzordeari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**6. NEXT GENERATION UE FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA.**

Europako Kontseiluak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen Next Generation EU programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko ekonomia suspertzeko tresna gisa. Suspertze Funts horren muina da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren bidez ezarria.

Espainiako Gobernuak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen, irailaren 29an, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzea xede.

Agindu horren 6. artikularen arabera, STEPeko neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jardun-eremuan aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta idazkariak idatzia duen Iruzurraren aurkako Neurrien Plana ikusirik,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Berako Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzea, Next Generation EB funtsak kudeatzeko.

2. Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala onartzea, Planaren 1. eranskinetako testuarekin.

3.- Onartutako Plana argitaratzea Berako Udalaren Gardentasun Atarian.

**7. 2023/35 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (BIZIKLETA BIDEAREN PROIEKTURAKO DIRULAGUNTZA).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko urriaren 11n egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Udalak jaso duen dirulaguntza



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGAÑA  
2023/10/19

honengatik: 139E/2023 Ebazpena, uztailaren 12koa, Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ebatzen baita "Toki entitateentzako dirulaguntzak, ekintza berritzaileak egiteko hirigintza arloan, dokumentuak prestatuz edo inbertsioak eginez espazio publikoetan 2023an" izenburuko dirulaguntzen deialdia.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:  
1-1340-60900. Mugikortasun jasagarriko bizikleta bidea eraikitzea. 4.682,70 €.  
Zenbateko osoa, 4.682,70 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatzeko dela:  
1-4508016. Dirulaguntza mugikortasun jasagarriko bizikleta bidea eraikitzeko. 4.682,70 €.  
Zenbateko osoa, 4.682,70 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez ERABAKI DA** diru-sarreraren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/35). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

## **8. 2023/36 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (MERKATARITZA-SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZA).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko urriaren 10ean egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Udalak jaso duen dirulaguntza honengatik: 263E/2023 Ebazpena, abuztuaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez dirulaguntza ematen baitzaio Berako Udalari, merkataritza-arloko planak egiteko toki-erakundeentzako dirulaguntzen deialdian.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:  
1-4300-64000. Merkataritza-sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko memoria idaztea.  
9.841,92 €.  
Zenbateko osoa, 9.841,92 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailekin finantzatzeko dela:  
1-4508014. Dirulaguntza merkataritza-sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko memoria idazteko. 2.000,00 €.  
1-46200. Merkataritza-sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko memoria idazteko ekarpena.  
7.841,92 €.  
Zenbateko osoa, 9.841,92 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.  
AITOR ELENPURU EGANA  
2023/10/19

Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez ERABAKI DA** diru-sarrereren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/36). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

### **9. 2023/37 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (METROBASERRI DISEINATZEKO DIRULAGUNTZA).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko urriaren 10ean egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Udalak jaso duen dirulaguntza honengatik: 139/2023 Ebazpena, irailaren 19koa, Barneko zuzendari nagusiarena, Nafarroako udalei dirulaguntzak emateko deialdia ebazten duena, 2023an sakabanatuak lokalizatu eta seinaleztatzeko jarduketak egin ditzaten.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:  
1-41400-64000. Metrobaserri diseinatzea. 2.273,83 €.  
Zenbateko osoa, 2.273,83 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatuko dela:  
1-7508007. Dirulaguntza Metrobaserri diseinatzeko. 2.273,83 €.  
Zenbateko osoa, 2.273,83 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez ERABAKI DA** diru-sarrereren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/37). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

### **10. 2023KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA (A MAILAKO ARKITEKTO LANPOSTU BERRI BAT SORTZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Arrazoitzea:

- 2022ko azaroaren 23ko osoko bilkuran, hasiera batean onartu zen Berako Udaleko eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileen plantilla organikoa 2023. urterako. Behin betiko onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko urtarrilaren 23an (15. zenbakia).

- 4 zenbakiko lanpostua arkitekto teknikoarena da, lan-araubideko izaera du eta finko beteta dago. Lanpostuan dagoen pertsonak arkitekto titulua du.

- Udalak hitzarmen bat sinatu zuen NASUVINSArekin, hirigintzaren arloko laguntza teknikoa emateko: besteak beste, plangintzari eta kudeaketari buruzko aholkularitza, hirigintza-lizentziatarako txostenak eta abar.

- Berako Udalak estrategikotzat jotzen du plantillako arkitekto batek aholkularitza teknikoa



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19

ematea, hirigintza arloan herritarrei ematen dien zerbitzua hobetzea helburu. Horrek esan nahi du teknikari bat egonen litzatekeela Berako hirigintza-espeditentaz soilik eta lanaldi osoz arduratzen; gainera, zerbitzuaren kostu ekonomikoa murriztea suposatuko luke.

- Horregatik guztiagatik, komeni da Udalaren antolaketa aldatzea, A mailako arkitekto lanpostu berri bat sortuz. B mailan plaza duen eta goi-mailako titulazioa duen pertsona baten mailaketatik etorriko litzateke.

Kontuan hartuta:

- Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren (251/1993 LFD) 15.6 artikulua honako hau ezartzen duela: 6. Eraginkortasun- eta ekonomia-arrazoiak direla-eta lanpostuen antolaketan eta funtzioetan aldaketak egitea komeni denean, eta aldaketa horien ondorioz, nahitaez, lanpostu horiek goragoko mailan kokatu behar direnean, Nafarroako administrazio publikoek, salbuespen gisa, hautaketa-probetarako deialdia egin ahal izanen dute beren funtzionarioentzat bakarrik, betiere deitutako lanpostu hutsek ez badakarte inolako gehikuntzarik plantillan dauden lanpostuen kopuruan.

- Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituztela.

- Alkateak idatzi duela aldaketa proposamena.

Azaldutakoan oinarriturik, baita aipatutako arrazoiketan ere, eta kontuan izanik aplikagarria den araubideak ezartzen duena,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. Hasierako onespena ematea jarraian zehazten den Udaleko langileen 2023ko plantilla organikoaren aldaketari:

Plantilla organikoaren aldaketa:

\* Lanpostua: arkitektoa.

Lanpostuaren zenbakia: berria sortu.

Kopurua: 1.

Araubide juridikoa: lan-araubidea.

Maila: A.

Lanpostuko osagarria, %6,88.

Bateraezintasuneko osagarria, %35.

Aginte osagarria, %18.

Sarbidea: barne-sustapen mugatua (251/1993 LFDren 15.6 artikulua), oposizio bidez.

Laneko egoera: hutsik.

Euskara maila: C1 (ahoz eta idatziz).

Arkitekto teknikoak A mailara igotzea lortzen badu, lan-izaera duen plantillako B mailako lanpostua amortizatu egingen da.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko aldian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGANA  
2023/10/19





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19

SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGANA  
2023/10/19

udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantillaren aldaketa behin betiko onartutzat joko dela.

4. Akordio hau jakinaraztea langile interesdunari.

## 11. BERAKO MATZADA KALEAREN ETA EZTEGARA PASEALEKUAREN ARTEKO HIRI-LOTURA GAUZATZEKO PROIEKTUKO OBREN DESJABETZEKO PROZEDURA HASTEA.

Ikusirik:

- Altair Ingenieria y Arquitectura SLk idatzi eta Antton Lete Núñezek 2022ko uztailan sinatutako «Berako Matzada kalearen eta Eztegara pasealekuaren arteko hiri-lotura gauzatzea» izeneko obra-proiektua.

- Afekzioen memoria, 2023ko irailaren 22koa, Agraria de afecciones y valoraciones SLP enpresak idatzia, hari esleitu baitzitzaion obraren afekzio eta desjabetzerako laguntza teknikoa.

- Idazkariak 2023ko urriaren 11n emandako txosten juridikoa.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 215. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 10., 15. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta,

**aho batez ERABAKI DA:**

1. «Berako Matzada kalearen eta Eztegara pasealekuaren arteko hiri-lotura gauzatzea» izenburuko obra-proiektua onartzea eta proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda hasieran onestea.

Udal zerbitzu publikoa denez, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 215.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, tokiko obra eta zerbitzuen proiektuak onartzeak berekin dakar proiektu horietan jasotako ondasunak onura publikokotzat jotzea eta okupatu beharra, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

### Berako Matzada kalearen eta Eztegara pasealekuaren arteko hiri-lotura gauzatzea Ondasun eta eskubideen zerrenda

Kodea	Titularrak	AFEKZIOAK		KATASTROA		
		Behin betiko okupazioa	Behin-behineko okupazioa	Poligonoa	Partzela	Deskribapena
		m <sup>2</sup>	m <sup>2</sup>			
<b>Berako udal-mugartea</b>						
BR-01	Nafarroako Foru Komunitatea (Hezkuntza)	9,92	348,88	10	12	Hiri-lorzorua
BR-02	Nafarroako Foru Komunitatea (Hezkuntza)	1.111,32	1.532,82	10	17	Hiri-lorzorua
	Berako Udala					



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 8 orrialdea





SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
BERAKO TELLICHEA  
MIGUEL JOSÉ BELARRA  
2023/10/19herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus  
bera@bera.eus

BR-03	Berako Udala	5,03	0,00	10	169	Hiri-lorzorua
BR-04	M. Ángeles Ruiz Ruiz	285,13	445,73	10	128	Hiri-lorzorua
BR-05Y07	M. Ángeles Ruiz Ruiz	401,29	608,83	10	24	Hiri-lorzorua eta belaia
BR-06	Berako Udala	444,77	1.102,00	10	5	Hiri-lorzorua
BR-08	Berako Udala	8,58	58,03	10	170	Hiri-lorzorua

2. Propiektua onartzean inplizituki eragiten dien ondasun eta eskubideak onura publikokoak direla eta okupatu behar direla aitortzea eta deklaratzeko.

3. Eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda jendeaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. Bertan, interesdunek egoki irizitako oharra edo alegazioak egin ahal izanen dituzte, eta argitaratutako zerrendan egon litezkeen akatsak zuzentzeko beharrezkoak diren datuak idatziz aurkurtu. Horretarako, proiektua eskuragarri izanen dute Berako (Nafarroa) Udalaren bulegoetan.

4. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Berako Udaleko iragarki-oholean jartzea. Halaber, dagokion iragarkia argitaratuko da Foru Komunitateko egunkari batean.

5. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

## **12. KATASTROKO 4. POLIGONOKO 17. PARTZELAKO (ELTZAURDIA AUZOA) HERRI-LURRA OKUPATZEA, IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO PUNTUAK JARTZEKO. HASIERAKO ONESPENA.**

Gaia eztabaidatu ondoren, mahai gainean utzi dute.

## **13. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA: DENBORA, PRESENTZIA, AHOTS ETA BIZITZA GEHIAGO.**

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez ONETSI DA** adierazpen instituzional hau:

Urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugun egun honetan, “Denbora, presentzia, ahots eta bizitza gehiago” lelopean, Berdintasun Teknikaria duten Nafarroako Toki eta Lurralde Erakundeek bat egin nahi dute egun honen ospakizunekin, zainketa sisteman landa emakumeek egindako ekarpena nabarmentzeko. Aspalditik, gure ama, amona eta arbasoak bizitzaren zaindari eta gure lurraldeetako zainzaile izan dira.

Landa ingurune emakumeek, askotan ikusezinak eta isilduak izan dira. Gure familia, komunitate eta ingurune naturalen zaintzaren zama eraman dute beren bizkarrean. Belaunaldi bakoitza elikatzeaz, sendatzeaz, hezteaz eta mantentzeaz arduratu dira. Laguntza eta elkartasun sareak sortu dituzte, gure lurretan biziari eutsi dion sare ikusezin baina sendoa eraikiz.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURUJEGANA  
2023/10/19

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

11tik 9 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.  
AITOR ELENBURU EGANA  
2023/10/19

Zainketa lanak neurritz gaineakoak izan dira eta oraindik ere horrela izaten jarraitzen dute, oztopo askori aurre eginez. Aurre egin behar izan diete aitortza faltari, baliabide eta zerbitzuen urritasunari, isolamendu geografikoari eta lana balioesteko politikarik ezari.

Zainketa lan horrekin batera, emakumeek zeregin erabakigarria dute landa eremuko ekonomian. Horietako asko nekazaritza, abeltzaintza eta artisautza jardueretan aritzen dira, eta elikagaiak ekoizten eta tokiko kultura zaintzen laguntzen dute. Beste batzuek aztertu, ikertu, ekin, sortu eta berritzen dute, landa ingurunea garatzeko aukera berriak sortuz. Hala ere, jarduera horiek sarritan erronkei egin behar izaten diete aurre, hala nola baliabide ezari, lurren titulartasunean dagoen genero arrakalari eta merkatuetara iristeko zailtasunei besteak beste.

Sexuaren araberako lan-banaketak, oraindik ere gaur eguneko dena, eta rol maskulino eta femenino tradizionaleri lotutako aurreiritzi eta estereotipoek elikatuta dagoenak, emakumeak zaintzera behartzen ditu, beren ugalketa-ahalmenaren trebetasun naturalizatu gisa. Horri, gainera, Nafarroako errealitatea eta gizarte-, kultura- eta erlijio-tradizioa gehitzen zaizkio, zainketek emakumeengan duten erantzukizun-karga ere betikotzen baitu.

Gaur egungo zainketak antolatzeko ereduak, ez ditu asetzen behar sozialak, eta datuek adierazten dute datozen urteetan okerrera egingo duela, zainketak beste modu batera antolatzen ez baditugu behintzat. Aldaketa soziodemografikoek, mendekotasun indizearen hazkundeak, emakumeen lan merkatuko presentzia handitzeak, politika neoliberalen garapenak, sistema publikoaren higadurak eta familia ereduaren hedadurak eragin nabarmena izan dute zainketen antolaketa moduetan, eta horrek “zainketen krisiaz” hitz egitera garamatza.

Toki Erakundeok erronka guzti hauek planteatzen dituen egungo egoera ikusarazi nahi dugu, eta testuinguru horretan, emakumeek zeregin erabakigarria dutela nabarmendu nahi dugu. Hortaz:

- Zaintza politika publikoen zeharkako ardatz bihurtzea ezinbestekoa da, landa eremuetako errealitatea kontuan hartuta.
- Zaintza lanak aitortu, murriztu eta birbanatzea lehenestea nahitaezkoa da, gizonen parte hartze arduratsua bultzatzeko eta emakumeei laguntzeko.
- Eta erakunde publikoetan, zainketa lanak kudeatu edo pribatizatu ordez, politika eraldatzaileak abiaraztea, zaintza demokratizatu eta duintzeko behar diren egiturak sortu eta garatuz.

Horrela bakarrik sustatuko da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea, eta, aldi berean, pertsonen eta gizarteek bizitzari, ongizateari, iraunkortasunari eta gure garaiko beste erronka batzuei dagokienez dituzten behar eta nahiei erantzun zuzena.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bideak bizitza erdian jartzea derrigortzen du. Beharrezkoa da, pertsona guztiek bizitza osoa eta duina dutela ziurtatzea herri eroso eta seguruetan, maila sozialean zein ekologikoan jasagarriak. Interes ekonomikoen gainetik ongizatea lortzeko beharrezkoak diren zainketak jasotzeko eskubidea aitortzea emakumei eta gizonei.

#### **14. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:



BERA

Egiaztapen-aseguruko kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 11tik 10 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria  
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA  
2023/10/19



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005  
31780 BERA  
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

[www.bera.eus](http://www.bera.eus)  
[bera@bera.eus](mailto:bera@bera.eus)

- Bandoak: B19/2023 zenbakiduna.

- Ebazpenak: 281/2023 zenbakiko ebazpenetik (2023-09-19) 299/2023 zenbakiko ebazpenera arte (2023-10-11).

## 15. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 21:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.  
AITOR ELEXPURU EGANA  
2023/10/19



BERA

Egiastapen-aseguru kodea: 3AAA AWRJ 9XW2 D93V M7KV

**URRIAK 18KO OSOKO BILKURAKO AKTA - SEFYCU 23194**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/> 11tik 11 orrialdea